

Jaulkipena **MREL eskakizunen** baitan egin da

Kutxabankek 500 milioi ezarri ditu lehentasunik gabeko senior zorrean

- **Bonoen prezioa mid-swapen gaintik oinarriko 100 puntutan kokatu da, 5 urteko amortizazio epealdiarekin**
- **Finantza Taldeak sistema osoko MREL eskakizun txikienetakoa du, bere arrisku profil, likidotasan, kaudimen eta ahalmen finantzario egokiengatik**

2019ko irailaren 18an. Kutxabankek arrakasta izan du **500 milioi** euroko balioarekin egin duen lehentasunik gabeko senior zorraren jaulkipenean, **5 urteko** amortizazio epealdiarekin.

Barne eskari handiaz gain, jaulkipena nazioarteko inbertsoreek sinatu dute, tartean Erresuma Batukoek, Frantziakoek eta Alemaniakoek. Izan duen harrera onaren erakusle dira eskariak eragiketaren zenbatekoa aise gaintu izana, eta ezarpenaren marjina antzeko beste jaulkipenen azpitik kokatu izana. Bonoen errendimendua era honetako jaulkipenetan erabiltzen den **mid-swap ereduaren gaintik oinarriko 100 puntutan** ipini da.

Merkatuen euskal finantza Taldean duten konfiantza erakusten du eragiketaren arrakastak. Hain zuzen ere, Fitch, Moodys eta S&P nazioarteko agentziek **Baa3/BBB-/BBB+**, **inbertsore graduan**, kokatu dute jaulkipena, era honetako tresnek alorrean lor dezaketen onenetakoa.

BBVA, Santander, Barclays, Crédit Agricole CIB eta Natixis bankuak izan dira eragiketa honetan ezarleak, eta Norbolsa zuzendariordea.

MREL eskakizunei lotutako jaulkipena

JUR-ek (Erresoluzio Batzorde Bakarra) ezarritako erregulazio-eskakizun berriaren arabera, Kutxabankek MREL eskakizun txikienetakoa du Espainiako finantza sisteman.

Hori dela eta, 2021eko uztailaren 1etik aurrera, kalkulua egin zen datan zituen pasibo eta ondare propioen %10,51 lortu behar luke ondare propioen eta pasibo jasangarrien bolumenean. Zenbaketa 2017ko abenduaren 31n egin zen. Eskakizun hori **arriskuaren arabera neurtutako aktiboen %19,5 da.**

Azterketa honen ondorioz, Kutxabank Taldeak **1.100 milioi euro inguruko jaulkipena** egin behar luke araua bete ahal izateko. Emisio honek erakundearentzat oso bolumen jasagarria du.

Lehentasunik gabeko senior zorraren jalkipen hau eskakizuna bete ahal izateko lehen urratsa da. JUR erakundeak Taldearen erresoluzio estratergiei buruz duen ikuspen positiboa erakusten du eskakizun-maila honek, bai eta kaudimenean eta ahalmen finantzarioan duen konfiantza ere.

Bere likidotasan egoera sendoa dela eta, Kutxabankek 2015 urtean egin zuen azkenekoz merkatu finantzarioetan jaulkipen bat, '**social covered bonds**' delakoak merkaturatzen aitzindaria izan zenean. Era honetako bonoak gizarte-ardurako egitasmoetara bideratzen dira. Euskal Bankua lehena izan zen bonoen errendimendua babes ofizialeko etxebizitzekin lotzerakoan, hauen erosketa, alokairua edo sustapena bultzatzeko asmoarekin.